



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia

Iruña, 2015eko azaroaren 6a

25. ZK.

A U R K I B I D E A

E S A I L A :

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Jabeldura, Nafarroako Erriberaren egoera sozioekonomikoari buruzkoa. Nafarroako Alderdi Popularreko foru parlamentarien elkarteak aurkeztu du (3. or.).
- Jabeldura, ikus-entzunezkoen alorreko ekintzei buruzkoa eta, bereziki, Euskal Irrati Telebista erakunde publikoak Nafarroako lurraldean gauzaturiko ekintzei buruzkoa. Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia jaunak aurkeztu du (3. or.).
- Jabeldura, enplegu politika aktiboei buruzkoa. Carlos Couso Chamarro jaunak aurkeztu du (4. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da alda dezan unibertsitatekoen bestelako irakaskuntzak ematen dituzten Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxe publiko eta pribatu itunduetan ikasleak onartzeari buruzko araubidea, ikasleak modu orekatuan eskolatze aldera funts publikoekin sostengaturiko ikastetxe guztietan, eta haiei ekitatezko sarbidea bermatze aldera. Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeak aurkeztu du (6. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da bere babesa eman diezaion Merkataritzari eta Inbertsioari buruzko Akordio Transatlantikoari (TTIP). Javier García Jiménez jaunak aurkeztu du (8. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da Zigor Kodearen 143. artikulua alda dezan, halako moduz non despenalizaturik geratuko baitira eutanasia eta suizidio lagundua, eta halaber premiatzen da Nafarroako Gobernua eutanasiarako eta suizidio lagundurako eskubidea arautuko duen foru lege bat presta dezan. Geroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (9. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da konpromisoa har dezan “Magnesitas de Navarra” enpresaren proiektua interes publikokoa deklaratzeko, eta bidezkoak diren konpentsazio-neurriak har ditzan jarduera gauzatu ahal izateko. José Javier Esparza Abaurrea jaunak aurkeztu du (10. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da jarduketa plan bat idatz dezan, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuari zerbitzu ematen dion Nafarroako Gobernuaren sare korporatiboko sistema informatikoaren azpiegitura teknologikoak hobetzeko. Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeak aurkeztu du (11. or.).
- Adierazpen instituzionala, Manuel Martorell Pérez kazetari nafarrari babesa ematekoa. Eledunen Batzarrek onetsia (12. or.).
- Adierazpen instituzionala, Haurren eta Nerabeen Diabetesaren Nazioarteko Eguna dela-eta. Eledunen Batzarrek onetsia (13. or.).

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

—Hezkuntza Batzordeak Nafarroako Eskola Kontseiluan izanen dituen ordezkariak izendatzea (14. or.).

H SAILA:

Bestelako testu arau-emaileak:

—Proposamena, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 24.5 artikulua aldatzekoa. Podemos-Ahal Dugu parlamentu-taldeak aurkeztu du (15. or.).

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Jabeldura, Nafarroako Erriberaren egoera sozioekonomikoari buruzkoa.

NAFARROAKO ALDERDI POPULARREKO FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko azaroaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroako Alderdi Popularreko foru parlamentarien elkarteak aurkezturiko jabeldura, Nafarroako Erriberaren egoera sozioekonomikoari buruzkoa.

2. Jabeldura hori Osoko Bilkuran izapidetzea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2015eko azaroaren 2an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

JABELDURAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Popularreko foru parlamentarien elkarteko eledun Ana Belrán Villalba andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako jabeldura hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko.

Ikusita Nafarroako Erriberako langabezia-tasa handiaren datuak, enpresen itxiera eta enpresa-jarduerarik eza, garrantzi berezikitzat jotzen dugu:

Nafarroako Gobernuari jabeldura egitea Nafarroako Erriberaren egoera sozioekonomikoari buruz.

Iruñean, 2015eko urriaren 27an

Eleduna: Ana Belrán Villalba

Jabeldura, ikus-entzunezkoen alorreko ekintzei buruzkoa eta, bereziki, Euskal Irrati Telebista erakunde publikoak Nafarroako lurraldean gauzaturiko ekintzei buruzkoa.

JUAN LUIS SÁNCHEZ DE MUNIÁIN LACASIA JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko azaroaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia jaunak aurkezturiko jabeldura, ikus-entzunezkoen alorreko ekintzei buruzkoa eta, bereziki, Euskal Irrati Telebista erakunde publikoak

Nafarroako lurraldean gauzaturiko ekintzei buruzkoa.

2. Jabeldura hori Osoko Bilkuran izapidetzea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2015eko azaroaren 2an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

JABELDURAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeari atxikitako Juan Luis Sáchez de Muniáin foru parlamentariak, Legebiltzarreko Erregelamenduak ematen dizkion ahalmenez baliatuz eta ondoko zioen azalpenean adierazitakoa oinarri:

Nafarroako Gobernuako lehendakariaren baime-narekin, ETBk Nafarroan bere seinalea digitalizatu du, ilegalki eta zerbitzua emateko Nafarroako

Gobernuaren lizentzia esleitua zeukaten nafar telebisten kaltetan.

Horregatik guztiagatik:

Jabeldura aurkezten diogu Nafarroako Gobernuari, Euskal Irrati Telebista erakunde publikoak Nafarroako lurraldean gauzaturiko ekintzei buruzkoa.

Iruñean, 2015eko urriaren 20an

Foru parlamentaria: Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia

Jabeldura, enplegu politika aktiboei buruzkoa.*CARLOS COUSO CHAMARRO JAUNAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko azaroaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Carlos Couso Chamarro jaunak aurkezturiko jabeldura, enplegu politika aktiboei buruzkoa.

2. Jabeldura hori Osoko Bilkuran izapidetzea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2015eko azaroaren 2an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

JABELDURAREN TESTUA

Podemos-Ahal Dugu parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Carlos Couso Chamarro jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, Nafarroako Gobernuari honako jabeldura hau aurkezten dio, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko.

Milioika pertsona langabezian daudenean, eztabaida biziberritu egiten da lanaren banaketari buruz eta langabeziaren drama sozial eta pertsonalarekin amaitzerakoan banaketa horrek izan behar duen zereginari buruz.

Beraz, lana eta enplegua bereiztetik hasi behar dugu.

Lantzat hartzen dugu gizakientzako ondasunak eta zerbitzuak sortzera bideratutako jarduera oro. Zaku handi horretan sartzen da merkataritzaren, gizartearen eta norbere etxearen eremuetan egiten den guztia. Datu enpirikoek horrenbes-

tez adierazten digute gizonek baino lan-jarduera handiagoa egiten dutela emakumeek (neurri handi batean, aitortu gabeko etxeko lanetan); ezberdinkeria handiak daudela talde eta klase sozialen artean; eta lanaren banaketaz hitz egiteak esan nahi duela jarduera hori guztia –hiru eremu horietan egiten dena– pertsona eta belaunaldi guztien artean justiziaz eta ekitatez banatu beharra planteatzea.

Enplegua, ordea, beste gauza bat da. Enplegu deitzen diogu diru-truke egiten den lan-jarduerari. Oro har, soldatapeko lanaren forma hartzen du, baina bere ñabardurak ditu, autoenpleguaz edo ekonomia kooperatiboez hitz egiten badugu. Hemen, enplegua banatzeak esan nahi du planteatzea mundu guztiak lortu ahal dezan bidezko diru-errenta bat bere lanaren truke, bai eta gizartean lanaren bitartezko parte-hartze horrekin batera joan behar duten bestelako ordainak eta segurtasunak ere (batez ere, gizarte segurantzaren, pentsioak, eta onarpen eta estatus soziala).

Gaur badakigu lan- eta enplegu-politikek irakurketa zabal eta kultural bat daukatela, uztartuta daudela ongizate eta justizia sozialari, politika publiko integralen taxutzeari eta errenten banaketari, urrunago joan gabe. Eta badakigu, halaber, horrek esan nahi duela lana eta enplegua jartzea politika publikoen erdigunean, duintasunaren eta gizakien beharrezan asebetezaren ikuspuntu-tik behatuta.

Foru Komunitateari dagokionez, langabeziari buruzko azken datuen arabera –2015eko hirugarren hiru hilekoari buruzko Biztanleria Aktiboaren Inkestaren arabera, 41.900 langabetu dago–, hau da, populazio aktiboaren % 9,35. Datu hotz horien

atzean dagoena gizarte-porrota da, eta, batez ere, giza drama ugari.

Zertaz ari gara? “Iraupen luzeko” langabezia dauden pertsonez, inolako diru-sarrerarik gabeko familiez, pobrezian eta gizarte-bazterketan dauden edo egoteko arriskua duten familiez eta enplegua aurkitzeko zailtasun handiagoa duten kolektibo sozialetakoak izateagatik enplegua aurkitzeko esperantzarik ez daukaten pertsonez, sarri askotan horren guztiaren ondorioz degradazio pertsonaleko eta desegituratze familiarreko prozesuetan sarturik daudenak, eta abar.

Horiei gehitu behar zaizkie enplegu bat edukitzeagatik estatistika horietan agertzen ez diren beste pertsona batzuk, zeinak antzeko egoeran baitaude; izan ere, enplegu horrek prekarietate-baldintzetan bizitzera behartzen ditu, “enplegua duten pobreak” kategoria berrira bultzatzeraino.

Horrek guztiak justifikatzen du Nafarroako Gobernuak bere arreta jartzea enplegu-politika aktiboak lehentasunez eta urgentziaz garatzean.

Lanaren banaketa ona aktibatuko duten politikak, enpleguak gehitzen laguntzeko, zeina jada ezinbestekoa baita; izan ere, denborak argi utzi du enpresentzako ohiko pizgarri politikek eta neurriek, beren jarduketa-eremu ugarietan, populazioaren lanbide heziketaren arlokoek, eta are legegintza arlokoek ere, ez dutela lortu langabezia-tasak gure gizartean hondar-mugetara jaisteia ekonomiaren une onenetan –2006an, adibidez, populazio aktiboaren % 4,38 zegoen langabezia Nafarroan–. Onena izanen litzateke langabezia-tasak honda-

rrekoak izatea eta, pertsonei dagokienez, langabezia soilik urrats txiki bat izatea, birkokatze profesionaleko aldi baterako prozesu baten ondoriozkoa.

Gainera, Geroa Bai, EH Bildu, Podemos-Ahal Dugu eta IU-E indar politikoez 2015eko uztailean Nafarroako Foru Komunitatearen gobernagarritasunerako sinatutako programa-akordioan, konpromiso bikoitz bat hartu zen:

– Alde batetik, “azterlan bat egitea administrazioan lana banatzeko aukerei buruz, baita haiek gauzatzeko aukerei buruz, eta 39/2014 Foru Dekretua aldatzea, Funtzio Publikoaren Mahaiko sindikatuarekin bat”

– eta, bestetik, lan-esparru guztietarako izaera orokorragoarekin, “lana banatzea bultzatzeko bideak aztertzea (barne-plangintza hobetzea, lanaldia doitzea edo murriztea, ordu estrak deuseztatzea, aurretiko erretiroa hartzea eta errelebo-kontratuak egitea...)”

Horregatik guztiagatik, parlamentari honek jabeldura aurkezten dio Nafarroako Gobernuari, enplegu politika aktiboari buruzkoa, ezagutze alde-ara zer jarrera duen lan-banaketa onari buruz ares-tiko bi puntuetan eta programa-akordioan jasotako aktibatzeke, eta eskatzen diogu horri buruz informa dezan, bai eta ildo horretan jada egin diren edo egin nahi diren urratsei eta azterlanei buruz ere.

Iruñean, 2015eko urriaren 29an

Foru parlamentaria: Carlos Couso Chamarro

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da alda dezan unibertsitateko ez bestelako irakaskuntzak ematen dituzten Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxe publiko eta pribatu itunduetan ikasleak onartzeari buruzko araubidea, ikasleak modu orekatuan eskolatze aldera funts publikoekin sostengaturiko ikastetxe guztietan, eta haiei ekitatezko sarbidea bermatze aldera.

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko azaroaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita alda dezan unibertsitateko ez bestelako irakaskuntzak ematen dituzten Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxe publiko eta pribatu itunduetan ikasleak onartzeari buruzko araubidea, ikasleak modu orekatuan eskolatze aldera funts publikoekin sostengaturiko ikastetxe guztietan, eta haiei ekitatezko sarbidea bermatze aldera.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzeko, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekitatezko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2015eko azaroaren 2an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeko eledun María Chivite Navascués andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko. Mozioaren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da alda dezan unibertsitateko ez bestelako irakaskuntzak ematen dituzten Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxe publikoetan eta pribatu itunduetan ikasleak onartzeari buruzko araubidea, ikasleak modu orekatuan eskolatze aldera funts publikoekin sostengaturiko ikastetxe guztietan, eta haiei ekitatezko sarbidea bermatze aldera.

Nafarroako Foru Komunitateko ikaspostuen eskaintza programatzean, Nafarroako Gobernuaren Hezkuntza Departamentuak harmonizatu egin behar ditu denek hezkuntzarako duten eskubidea ziurtatzeko botere publikoek duten betebeharretik

heldu diren eskakizunak eta ikasleen, gurasoen eta tutoreen eskubide indibidualak.

Horri dagokionez, hezkuntza-sisteman sartzeko prozesua funtsezko elementua da eta erabakigarria gertatzen da. Prozesu horren gardentasuna, informazioaren argitasuna, baldintzak, epeak eta prozedura oso dira garrantzitsuak eskolatzean askatasuna, berdintasuna eta justizia soziala ziurtatzeko.

Horregatik, Hezkuntza Departamentuak doako irakaskuntzen hezkuntza-eskaintza programatuko du kontuan hartuta betiere zein den ikastetxe publikoen eta pribatu itunduen eskaintza eta, irakaskuntzaren kalitatea ziurtatze aldera, kontuan hartuta hezkuntza-laguntzako premia berariazkoa duten ikasleen eskolatze egoki eta orekatua, edozein dela ere premia horren jatorria eta arrazoia: arrazoi pertsonalak edota sozial eta kulturalak. Orobat, Nafarroako Gobernuaren Hezkuntza Departamentuak bermatuko du behar adina ikaspostu publiko dagoela, batik bat biztanleria berriko eremuetan.

Hezkuntza Administrazioak, ikastetxe eta institutu publikoen titularra den aldetik, ziurtatuko du ikastetxe horiek erreferente izanen direla askatasunaren, ekitatearen, kalitatearen eta bikaintasunaren helburuak lortzean, lege honek helburu horiek bilatzen baititu hezkuntza-sistamarako.

Aurreko guztia ziurtatzeko, modernizatu eta arindu egin nahi da prozeduren aldetik zaharra eta orain arte nahiko iluna den prozesu bat. Horiek horrela, ikasleak onartzeko prozedura irizpide objektiboetan oinarrituko da, zeinen bidez ebatzi ahalko baitira ikastetxe publiko eta itundu bakoitzean eskainitako ikaspostuak eskatzaileen kopurura iristen ez diren kasuak. Nafarroako Gobernuak ezarriko ditu irizpideak, Hezkuntzaren Kalitatea Hobetzeko abenduaren 9ko 8/2013 Lege Organikoak ezarritako irizpideekin bat.

Hori dela-eta, ondoko erabaki proposamena aurkezten dugu:

Nafarroako Parlamentuak, Nafarroako hezkuntza-komunitatean zer egoera dagoen jabetuta,

Nafarroako Gobernu berria premiatzen du alda dezan unibertsitateko ez bestelako irakaskuntzak ematen dituzten Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxe publiko eta pribatu itunduetan ikasleak onartzeari buruzko gaur egungo araua. Horretarako, honakoak egin ditzan premiatzen da:

1. Nafarroako Eskolatzeko Batzorde Nagusiak Nafarroako lurralde osoan eskumena izan den duela berrestea. Aldi berean, eta erakundeak eta eginkizunak ez biderkatzeko, batzorde nagusi horri Iruñerriko eskolatzeko bereziki esleitzea, bai eta prozesuan gerta daitezkeen erreklamazioen ebazpena, hala berriaz esleitutako eremuko erreklamazioena, nola gainontzeko eskolatzeko batzorde eskualdekoetan izaten direnena.

2. Eskualdeko eskolatzeko batzordeak sortzea: Tuterakoa, Tafallakoa, Lizarrakoa, Zangozakoa eta Baztan-Bidasoakoa. Hala ere, hori ez da eragozpen izan beste eskolatzeko batzorde batzuk abian jartzeko, tokikoak nahiz eskualdekoak, hori egitea beharrezkoa bada prozesua errazteko eta ziurtatze aldera ikasleek berdintasunezko sarbidea izan dutela ikastetxe publikoetan nahiz itunduetan.

3. Batzordeen osatura zehaztea. Paritaria izan da: batetik, Hezkuntza Departamentuko eta/edo udal ordezkariak, eta, bestetik, eskolakomunitatearen ordezkariak: ikastetxe publikoetako eta itunduetako zuzendaritza-taldeetako kideak (bi), ikastetxe horietako gurasoak (lau) eta arlo publikoko eta itunduko irakasleen erakunde sindikalak (bi). Batzorde guztiek izan beharko dute, hizpidearekin baina botorik gabe, Nafarroako Hezkuntza Bereziko Baliabide Zentroko ordezkari bat edo eskualdeko orientabide zerbitzuetako ordezkari bat, hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleentzat, eta gizarte-zerbitzuetako ordezkari bat, desabantaila soziokulturala duten ikasleen eskolatzeko.

4. Eskolatzeko Batzorde Nagusia izan den ikasle berriek ikastetxeetan izena emateko epeak finkatuko dituen, bai lehenbizikoz eskolatzeko diren ikasleentzat, bai beste ikastetxe batzuetatik datozenentzat; Batzorde Nagusia izan den, hala ere, lehentasun-irizpideak ezarriko dituen baldin eta ikastetxe batean ikasi nahi dutenak gehiago badira ikastetxe horrek dituen ikaspostuak baino, eta batzorde horrek onetsiko ditu aipatutako prozesurako prozedura eta dokumentazioa. Ulertzen da aurrekoak ikastetxe guztiei eragiten diela, eta unibertsitateko ez bestelako eskolatzeko guztiari, maila eta etapa guztietan, funts publikoekin ordainduak badira, salbu eta Haur Hezkuntzako lehen etapari, hau da, 0-3 tarteari.

5. Hezkuntza-plangintza eta kasu bakoitzeko ikaspostu-kopuruaren finkatzea ez da Batzorde Nagusiaren eskumenekoa izan, baina bai, ordea, horren publikitate orokorra egitea eta informazioa ahalik eta komunikabide gehien bidez zabaltzea, eskolatzeko-prozesuaren berdintasunaren eta gardentasunaren berme modura.

6. Familien eskolatzeko-bermea prozesu informatizatu baten bidez gauzatu da, besteak beste. Prozesu hori bat bakarra izan da eta Hezkuntza Departamentuan zentralizatu egon da, nahiz eta horretarako sarbidea egon den edo eskabideak aurkezteko modua izan den Nafarroako edozein ikastetxetatik, edozein gailu pribatutik, pertsonala izan edo familiarra, Hezkuntza Departamentutik bertatik, udal-bulegoetatik edo informazio orokorreko zentroetatik, horretarako on line programa ireki bat erabiliz, sarbide libre eta errazekoa, izapide administratibo askotarako jada egiten den moduan.

7. Hezkuntza Departamentua izan da, eta ez beste inor, onartuen zerrendak argitaratuko dituen; horretarako, alde aurretik, Eskolatzeko Batzorde Nagusiaren adostasuna beharko du, eta, kasu bada, eskualdeko edo tokiko eskolatzeko batzordearena.

8. Eskararak ikaspostuak baino gehiago badira, honakoak soilik erabiltzen ahalko dira erabakitzeko irizpide gisa (10 puntu guztira):

– Familiaren egoitzaren hurbiltasuna, edo, bestela, modu justifikatuan, gurasoen edo tutoreen lantokiaren hurbiltasuna (% 40, gehienez); distantziaren proportzioa GPS bidez neurtuko da.

– Anai-arrebak izena emanda izatea eskaera egindako ikastetxean (% 30).

– Bestelako arrazoi sozial batzuk, hala nola familia ugaria edo hezkuntza-premia bereziak izatea; justifikatu egin beharko dira eta batzordeak baloratu egin beharko ditu, aurkeztutako informazio eta/edo dokumentazioaren arabera (% 30, gehienez).

9. Eskolatzeko-prozesuan sortutako erreklamazioak, lehenbizi, eskualdeko edo tokiko eskola batzordeek ebatziko dituzte, eta, hurrengo, Eskola Batzorde Nagusiak. Gero, gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu ahalko zaio Hezkuntzako kontseilariari, eta, kasu bada, administrazioarekiko auzi-errekurtsioa aurkeztu ahalko da.

Iruñean, 2015eko urriaren 27an

Eleduna: María Chivite Navascués

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da bere babesa eman diezaion Merkataritzari eta Inbertsioari buruzko Akordio Transatlantikoari (TTIP).

JAVIER GARCÍA JIMÉNEZ JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko azaroaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Javier García Jiménez jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen baita bere babesa eman diezaion Merkataritzari eta Inbertsioari buruzko Akordio Transatlantikoari (TTIP).

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2015eko azaroaren 2an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Parlamentuko Alderdi Popularreko foru parlamentariaren elkarteko foru parlamentari Javier García Jiménez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta onets dadin. Mozioaren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da bere babesa eman diezaion Europar Batasunaren eta Estatu Batuen arteko merkataritza askearen akordioari (TTIP).

Urteak joan, urteak etorri, historiak erakutsi du gehien salerosten duten eta lehia askeari irekien dauden herrialdeak direla gehien hazten direnak.

Mundu globalizatu batean, ikuspegi global bat eduki eta gertakariei aurrea hartu beharra dago.

EB eta AEB dira munduko bi merkataritza-bloke handiak, eta gauza asko daukagu amankomunean; horrek erraztu egiten du gisa honetako merkataritza-akordio bat. Europak –eta, bereziki, Espainia bezalako herrialdeek– zer irabazi handia dute TTIPekin. Alde batetik, merkataritza-akordio horrek esportazioen gorakada ekarriko du, eta hori diru-sarreraren iturri handia izanen da. Beste alde batetik, euroaren egungo egoerak, suspertze-prozesuan dagoen Espainiako ekonomiak eta aduana-zerga handiak dituzten zenbait sektorek

–esate baterako, zapatagintza, automobilgintza, ehungintza edo kontserbagintza– akordio bat eskatzen dute, merkataritza-truke hau bultzatzeko.

Enpresentzako kostuen murrizketa ez da soilik etorriko aduana-zergak murriztetik; negoziazioen erdigunean dago NTBak kentzea, legegintza-aldeak elkarren onarpena eginez –ehungintza-gaien, medikamentuen edo elikagaien etiketat–, bikoiztasunak desagerraraziz –esaterako, ikuskapen bikoitzak–, edo azterlan zientifikoak edo farmakologikoak Atlantikoaren bi aldeetan onartuz.

Mundu globalizatu batean, desiragarria da maila multilateralean aurrera egitea, ahalik eta herrialderik gehien erants daitezkeen; baina, aldi berean, gero eta zailagoa da akordioak lortzea batzuetan hain ezberdinak diren kulturen eta ekonomien artean. Halaber, TTIP bezalako akordioetatik abiatuta lortutako aurrerapen guztiek balioko dute proba-eremu gisa, jakiteko zer formulak funtziona dezakeen hobeki maila multilateralean.

Munta honetako akordio batean, funtsezkoak dira gardentasuna eta erregulazioa. Horregatik, Europako Batzordea lanean ari da estatuen eta inbertitzaileen arteko desadostasunen arbitrajeko mekanismoa –ISDS– etengabe hobetzeko, gardentasuna erabatekoa izan dadin eta arbitraje-organo objektibo, zalu eta independenteak, konfiantza sendotuko dutenak, ziurtatze aldera.

TTIPk merkataritzaren garapen eta bultzada handia ekarriko du; bereziki, sektore zehatz batzuetan, adibidez nekazaritzako elikagaien sektorean, non adierazpen geografikoa duten produktuen babes handiagoa lortuko baita eta europar esneki-ekoizlek abantaila lor baitezakete beste ekoizle batzuekiko lehian. Zapatagintzaren sektoreari dagokionez, aurreikuspena da TTIP onesteak –2016an onestea aurreikuspena da– Europako zapatagintza-enpresei ahalbidetuko diela 200 milioi kontsumitzaile potentzialengana iritsi ahal izatea. Halaber, onura berezia ekarriko dio energiaren sektoreari –Espainiako enpresek presentzia handia dute nazioartean– edo automobilgintzaren sektoreari –zeinetan salerosketak nabarmen igo-tzea espero baita–.

AEBekiko akordio hori erdietsiz, ez dira Amerikako kontinente osoarekiko merkataritza-loturak soilik estutzen. TTIPri esker, EBk aurrerapauso bat

ematen du nazioarteko merkataritza-harremanari buruzko etorkizuneko araugintzan.

Hortaz, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

1. Bere babesaren eman diezaion Europar Batasunaren eta Estatu Batuen arteko merkataritza askearen akordioari (TTIP), berekin ekarriko duelako

esportazioak areagotzea, enpresa txiki eta ertainek aukera berriak izatea, lehia suspertzea eta enpresek nazioartekotzeko aukera handiagoak edukitzea.

Iruñean, 2015eko urriaren 27an

Foru parlamentaria: Javier García Jiménez

Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da Zigor Kodearen 143. artikulua alda dezan, halako moduz non despenalizaturik geratuko baitira eutanasia eta suizidio lagundua, eta halaber premiatzen da Nafarroako Gobernua eutanasiarako eta suizidio lagundurako eskubidea arautuko duen foru lege bat presta dezan.

GEROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko azaroaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Geroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Espainiako Gobernua premiatzen baita Zigor Kodearen 143. artikulua alda dezan, halako moduz non despenalizaturik geratuko baitira eutanasia eta suizidio lagundua, eta halaber premiatzen baita Nafarroako Gobernua eutanasiarako eta suizidio lagundurako eskubidea arautuko duen foru lege bat presta dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2015eko azaroaren 2an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

MOZIOAREN TESTUA

Geroa Bai parlamentu-taldeko eledun Koldo Martínez Urionabarrenetxeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko. Mozioaren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da suizidio lagundurako eta eutanasiarako eskubidea arautuko duen foru lege bat presta dezan, eta Espainiako Gobernua ere

premiatzen da Zigor Kodearen 143. artikulua alda dezan, halako moduz non despenalizaturik geratuko baitira eutanasia eta suizidio lagundua.

Espainian, eutanasia delitua da. 1995eko Zigor Kodearen arabera, zenbait eutanasia-modu sei espetxe-urtera bitarte zigortzen dira, nahiz eta gaiari buruz populazioaren artean egindako inkestek erakusten duten eutanasiak babes handia daukala. Errealitate horretan, urtero pertsona ugari joan behar izaten du norberaren bizitza amaia-razteko modua hautatzeko bidea ematen duten herrialdeetara –Suitza, Belgika, Holanda, Luxenburg...–. Ohartzen gara, halaber, legeak arautzen ez dituen “eutanasia klandestinoak” gertatu gertatzen direla. Kasu horietan, esku anonimo bat saiatzen da pertsona gaixoen borondatea errespetatzen, Estatuaren ordeztaritzan, behar bezala araututa egon beharko litzatekeen gai batean.

Espainiako Estatuan badira zenbait elkarte helburu gisa dutenak pertsonen beren bizitzaren amaiera hautatzeko duten eskubidea defendatzea eta errebindikatzea, eta eutanasiaren eta suizidio lagunduraren despenalizazioa defendatzea gaixotasun terminal bat duten pertsonen kasuan, jasan ezin zaien sufrimenduari ahalik eta gutxienez. Gizartearen gehiengo batek babesten du pertsonen heriotza-modua hautatu ahal izatea, sufrimendu txikiarekin eta baldintza ahalik eta duinenetan. Halere, aldi-aldi aztoratu egiten gara zenbait albisterek, jendeari gogorarazten diotenak legez arautu beharra dagoela gure imajinarioan luzaz gaitortuta dagoen zerbait –alegia, pertsona bakoitza bere bizitzaren jabe dela, eta bere heriotzaren jabe ere behar duela izan–.

Horregatik guztiagatik, honako erabaki proposamen hau aurkezten dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernuaren premiatzen du Zigor Kodearen 143. artikulua alda dezan, halako moduz non despenalizaturik geratuko baitira eutanasia eta suizidio lagundua.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuaren premiatzen du eutanasiarako eta suizidio lagundurako eskubidea arautuko duen foru lege bat presta eta gara dezan.

Iruñean, 2015eko urriaren 28an

Eleduna: Koldo Martínez Urionabarrenetxea

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuaren premiatzen da konpromisoa har dezan “Magnesitas de Navarra” enpresaren proiektua interes publikokoa deklaratzeko, eta bidezkoak diren konpentsazio-neurriak har ditzan jarduera gauzatu ahal izateko.

JOSÉ JAVIER ESPARZA ABAURREA JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko azaroaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José Javier Esparza Abaurrea jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuaren premiatzen baita konpromisoa har dezan “Magnesitas de Navarra” enpresaren proiektua interes publikokoa deklaratzeko, eta bidezkoak diren konpentsazio-neurriak har ditzan jarduera gauzatu ahal izateko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2015eko azaroaren 2an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

MOZIOAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentualdeko kide José Javier Esparza Abaurreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkeztu dio Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazio Departamentuari.

Habitategi buruzko 92/43 Europako Zuzentzarauak honako hau dio 6. artikuluko 4. idatz-zatian: “.. Proiektuak lekuan izango dituen eraginaren ebaluazioan ondorio txarrak atera arren, bestelako hautabiderik ez badago eta plan edo proiektuaren bat egin behar bada lehen mailako interes publikoko ezinbesteko arrazoiak direla-eta –arrazoi sozialak edo ekonomikoak barne hartuta–, kidea den estatuak egoki diren konpentsazio-neurriak hartu beharko ditu, Natura 2000 Sarearen koherentzia orokorra ondo babestuta gera dadin bermatzeko.

Hori guztia dela eta, mozio hau aurkezten dugu:

Nafarroako Gobernuari eskatzea –UPNk horretara premiatzen du–, “Magnesitas de Navarra” enpresaren proiektua, deuseztatzen duen Nafarroako Auzitegi Nagusiaren epaiaren aurka Nafarroako Gobernuak kasazio errekurtsio bat jartzeaz harago, zeina UPNren eskaria baita, eta toki entitateek aurkeztutako errekurtsioekin zer gerta ere, konpromisoa har dezan proiektu hori interes publikoko deklaratzeko, eta bidezkoak diren konpentsazio-neurriak har ditzan jarduera gauzatu ahal izateko; izan ere, konponbide horretarako modua badago Gobernuak horretarako borondatea izanez gero.

Iruñean, 2015eko urriaren 29an

Foru parlamentaria: José Javier Esparza Abaurrea

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da jarduketa plan bat idatz dezan, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuari zerbitzu ematen dion Nafarroako Gobernuaren sare korporatiboko sistema informatikoaren azpiegitura teknologikoak hobetzeko.

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko azaroaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita jarduketa plan bat idatz dezan, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuari zerbitzu ematen dion Nafarroako Gobernuaren sare korporatiboko sistema informatikoaren azpiegitura teknologikoak hobetzeko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2015eko azaroaren 2an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeko eledun María Chivite Navascués, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

Azken urteotan, nabarmen andeatu da Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuari zerbitzu ematen dion Nafarroako Gobernuaren sare korporatiboaren sistema informatikoa, zerbitzuaren moteltasunak eta are informatikako prestazioa erori izanak erakusten dutenez.

Gehien kaltetutako zerbitzuak dira zerikusia dutenak aurretiko hitzorduarekin, historia medikoarekin, errezeta elektronikoarekin, mediku-aginduekin eta laguntza espezializatuko nahiz oinarrizko osasun laguntzako bestelako osasun-aplikazio batzuekin. Azken batean, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko arlo guztiak eta maila guztiak ageri dira inplikatura.

Osasun arloko profesionalek egindako erreklamazioak etengabeak izan dira; beren lan-baldintzak gero eta zailagoak dira, eta gaixoei azalpenak eman behar izaten dizkiete zerbitzu-etenei edo zerbitzuaren moteltasunari buruz, eta horrek, jakina, eragina dauka Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren erabiltzaileek pairatzen dituzten atzerapenetan eta itxaroten eman beharreko denboretan, bai eta profesionalen eta osasun publikoko sistemaren beraren efizientzian ere.

Erabaki proposamena:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du jarduketa plan bat idatz dezan, eta ondoren urgentziaz bete dezan, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuari zerbitzu ematen dion Nafarroako Gobernuaren sare korporatiboaren sistema informatikoaren azpiegitura teknologikoak hobetzeko. Planak honako hau jasoko du:

– Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren zerbitzu informatikoa eskaintzeko beharrezkoak diren azpiegiturak berritzea eta modernizatzea, hardwarea, softwarea, birtualizazioa eta monitorizazioa barne.

– Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren sareko zentroen arteko komunikazioa aztertzea eta hobetzea, eta are Nafarroako Foru Komunitateko farmazia-bulegoen sarekoen artekoa ere, horiei guztiei banda zabala jarritz, eta komunikazioa hobetzeko behar diren elektronika edo segurtasun arloko jarduketak egitea.

– Oinarrizko osasun laguntzan eta laguntza espezializatuan, historia klinikorako, errezeta elektronikorako eta bestelakoetarako erabilitako aplikazioak eguneratzea, merkatuak eskaintzen dituen aukera berrietara egokituz horiek denak, prestazio hobekin, eraginkorragoekin eta ekonomikoagoekin, etorkizuneko laguntza medikoko moduetara bideratuta; esaterako, telemedikuntzara.

Iruñean, 2015eko urriaren 29an

Eleduna: María Chivite Navascués

Adierazpen instituzionala, Manuel Martorell Pérez kazetari nafarrari babesa ematekoa.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2015eko azaroaren 2an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“Nafarroako Parlamentuak honako hau erabaki du:

– Estatu Batuetako enbaxadari eta Espainiako Kanpo Arazoetako Ministerioari idazki bana igortzea, honako honen berri emateko:

- Manuel Martorell behin baino gehiagotan aritu izan da Foru Legebiltzar honekin lankidetzan Bizikidetasunaren eta Nazioarteko Elkartasunaren Batzorde Bereziaren bitartez; betiere, Ekialde Hurbilaren erlijio eta kultur aniztasunaren defentsan.

- Manuel Martorellek zehazki esku hartu du Irango Errepublika Islamiarrean giza eskubideak defendatzeko zenbait ekimenetan (2008ko ekainean eta 2011ko martxoan), Sirian erlijio eta kultur aniztasuna defendatzeko ekimenetan (2014ko martxoan), eta urte horretako irailean, berriz, bere buruari Estatu Islamiarra deitzen diotak Iraken eta Sirian egindako erlijio eta etnia garbiketako kan-

painen aurka; bereziki, emakume yezidiak bahitu eta sexu-esklabo bihurtzearen aurka.

- Batzorde horrek bi adierazpen instituzional onetsi ditu ekimen horiekin bat etorritz; hain zuzen ere, balio demokratikoen defentsaren eta erlijio nahiz etnia gutxiengoekiko errespetuaren espiritarekin bat zetozelako.

– Nafarroako Foru Komunitateko biztanle guztien ordezkari den aldetik, Amerikako Estatu Batuek Espainian duten enbaxadara jotzea, azal dezan Estatu Departamentuak zer arrazoi zehatz izan duen nafar horri krimen hain larria leporatzeko.

– Espainiako Kanpo Arazoetako Ministerioari eskatzea erantzun positiboa eman diezaion Manuel Martorellek egindako babes-eskariari, atzerriko gobernu batek nafar baten oinarritzko eskubideak argiro urratzen dituen gertakari hau dela-eta”

Iruñean, 2015eko azaroaren 2an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Adierazpen instituzionala, Haurren eta Nerabeen Diabetesaren Nazioarteko Eguna dela-eta.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2015eko azaroaren 2an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“Heldu den azaroaren 4an ospatzen den Haurren eta Nerabeen Diabetesaren Nazioarteko Eguna dela-eta, Nafarroako Parlamentuak honako hau erabaki du:

– Haurren eta gazteen diabetesari buruzko St. Vincenteko 1989ko adierazpeneko helburuak eta adierazpen hori dela-eta ondoren nazioartean hartutako erabakiak bete daitezen bultzatzea, eta Nafarroako Gobernuak premiatzea helburu horiek bete ditzan.

– Nafarroako Gobernuak premiatzea haurren diabeteserako unitateak bitarteko zientifiko, pertsonal eta material espezializatu guztiez hornitzera, horrela haurrari, nerabeari eta inguruko

laguntzarik onena bermatzeko, betiere diabetikoen elkarteekin lankidetzan estuan jardunez. Horren helburua da laguntzarik onena emate aldera eta etorkizunean sendatzeko itxaropena izate aldera egungo zientziak haur eta nerabe horientzat eskaintzen dituen eta eskainiko dituen aurrerapen guztiez baliatu ahal izatea eta haiek aplikatzea.”

– Nafarroako Gobernuak premiatzea jarduketa protokolo koordinatu bat egitera Hezkuntza Departamentuaren, Osasun Departamentuaren eta pertsona diabetikoen elkarten artean.”

Iruñean, 2015eko azaroaren 2an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

(Oharra: Aipatu eranskina Nafarroako Parlamentuaren webgunean kontsultatu daiteke: www.parlamentodenavarra.es/inicio/publicaciones/documentos.aspx).

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Hezkuntza Batzordeak Nafarroako Eskola Kontseiluan izanen dituen ordezkariak izendatzea.

Nafarroako Parlamentuko Hezkuntza Batzordeak, 2015eko azaroaren 3an egindako bilkuran, hurrengo Erabakia hartu zuen:

1. Hezkuntza Batzordeak Nafarroako Eskola Kontseiluan izanen dituen ordezkari hauek izendatzea:

– Miren Aranoa Astigarraga andrea.

– María Luisa de Simón Caballero andrea.

2. Erabaki hau Nafarroako Gobernuari helaraztea eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2015eko azaroaren 3an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

H saila:
BESTELAKO TESTU ARAU-EMAILEAK

Proposamena, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 24.5 artikulua aldatzekoa.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko urriaren 26an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Podemos-Ahal Dugu parlamentu-taldeak Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 24.5 artikulua aldatzeko proposamen bat aurkeztu du.

Hori horrela, eta Legebiltzarreko Erregelamenduko seigarren xedapen gehigarrian eta 148. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona ERABAKIA:

1. Legebiltzarreko Erregelamendua aldatzeko proposamen hori izapidetzeko onartzea eta Osoko Bilkurara igortzea, aintzat har dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2015eko urriaren 26an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Proposamena, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduen 24.5 artikulua aldatzekoa

ZIOEN AZALPENA

Gardentasunari eta Gobernu Irekiari buruzko ekainaren 21eko 11/2012 Foru Legea 2012ko ekainaren 28an argitaratu zen Nafarroako Aldizkari Ofizialean. Lege horretako laugarren xedapen gehigarriak ezartzen duenez, legean zuzenean zehazten ez diren erakundeek –besteak beste, Nafarroako Parlamentuak– gardentasunerako eta herritarren parte-hartze eta elkarlanerako neurriak hartuko dituzte urtebeteko epean, foru lege horretan jasotako printzipio eta aurreikuspenekin bat.

Ekainaren 21eko 11/2012 Foru Legeko laugarren xedapen gehigarriaren arabera, Nafarroako Parlamentua behartuta dago gardentasunerako eta herritarren parte-hartze eta elkarlanerako neurriak hartzera bere eskumenen esparruan, legean jasotako printzipioei eta aurreikuspenei jarraikiz.

Parlamentua ez dago foru legearen manu guztiei hertsiki lotuta; bai, ordea, haren printzipioei eta aurreikuspenei, eta hartara neurri ezberdinak hartu behar ditu legea bere eskumenen esparrura egokitzeko, haren izaerarekiko eta hari buruzko arauetikiko errespetu osoz. Hori betetzeko, eta Nafarroako Parlamentuko Mahaiak Eledunen Batzarrari 2013ko ekainaren 27an entzun ondoren eskatuta egindako txostenean ere ezarritakoarekin bat, zenbait arau-aldaketa egin beharra dago; besteak beste, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 24. artikulua, publikitatea eman ahal izate aldera parlamentari karguarenak ez diren jarduera produktibo eta profesioaletatik oro har heldu diren etekin ekonomikoei eta ordainsarriei, diru-sarrera horiek jarduera-aitorpenean jasoz, bai eta formalki aurreikuste aldera ondare-ondasunen aitortpenaren publikitatea ere, beharrezkoa den arduraz betiere, horien kokapenari buruzko datuak kenduta eta horien titularren pribatutasuna eta segurtasuna zainduz. Orobat, Nafarroako Parlamentuko Mahaiaren 2010eko otsailaren 8ko Erabakia, foru parlamentarien jardueren aitortpeni buruzko datu pertsonalen fitxategia nahiz ondasunena aldatzekoa, halako moduan non horien publikitatea aurreikusiko baita eta kendu egingen baitira datuak lagatzeko debekuari buruzko aipamenak. Azkenik, Nafarroako Parlamentuko artxiboaren funtzionamenduari buruzko arauak aldatu beharko dira, bermatze aldera herritar orok daukala informazio publikorako sarbidea izateko eskubidea.

Lege-manuak betetze aldera legeak arau horiek alda daitezten emandako epea luzaz igarota, urgentea eta beharrezkoa da honako aldaketa hau egitea.

Lehenengo artikulua. Nafarroako Parlamentuko Erregelamendua aldatzea.

Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduko 24.5. artikulua honela idatzita geldituko da:

“Jardueri eta ondare-ondasunei buruzko aitortpenak Interes Erregistroan jasoko dira. Erregistro

hori lehendakaria zuzenean buru duela eta legelari nagusiak zaindurik osatuko da Legebiltzarrean. Erregistroaren edukia publikoa izanen da. Edonola ere, ondare-ondasunei buruzko informazio publikoari dagokionez, beharrezkoak diren zuhurtziazko neurriak hartuko dira: ez dira agertuko haien kokapenari buruzko datuak, eta titularren pribatutasuna eta segurtasuna begiratuko dira.”

Xedapen gehigarria. Gehienez ere hilabeteko epean, Parlamentuko Mahaiak gainerako araudia egokituko du artikulu honetan aurreikusitakora eta, bereziki, aldatuko da Nafarroako Parlamentuko Mahaiaren 2010eko otsailaren 8ko Erabakia, 2010eko martxoaren 22ko 36. NAO n argitaratua. Halaber, berridatziko dira Nafarroako Parlamentuko artxiboaren funtzionamenduari buruzko arauak, bermatze aldera edozein herritarrek Parlamentuko

informazio publikoa eskuratzeko duen eskubidea, eta, horretarako, sarbide publiko hori ziurtatzeko beharrezkoak diren neurri betearazle guztiak hartuko dira.

Xedapen iragankorra. Parlamentari-izaera Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduko egungo 24.5 artikuluan ezarritakoaren arabera hartu duten foru parlamentariak zilegi izanen dute aukera egitea beren ondasun-ondareei buruzko aitortpena publiko egin ala ez. Publiko egiteko, beharrezkoa izanen da parlamentariaren baimen berariazkoa eta idatzizkoa.

Azken xedapena. Aldaketa honek Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra. Nafarroako Aldizkari Ofizialean ere argitaratuko da.